

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

#### Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

#### **Vitoria-Gasteizko hiri antolamenduko plan orokorraren berrikuspenaren hasierako onespeneren jendaurreko erakustaldia luzatzea 2023ko uztailaren 1era arte**

Hauxe erabaki zuen Udalbatzak 2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran:

Lehena. 2023ko uztailaren 1era arte (egun hori barne) luzatzea Vitoria-Gasteizko hiri antolamenduko plan orokorraren berrikuspenaren hasierako onespeneren jendaurreko informazio aldia.

Bigarrena. Jendaurreko erakustaldirako epearen luzapena ALHAOean eta Araban gehien saltzen diren egunkarietan argitaratzea.

Espedientea jendaurrean egongo da Vitoria-Gasteizko Udalean (San Martingo bulego teknikoak), Teodoro Dublang Margolariaren kaleko 25. zenbakian eta udalaren web-orrian, esteka honetan: [www.vitoria-gasteiz.org/hapoberria](http://www.vitoria-gasteiz.org/hapoberria).

Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 2an

*Alkate-lehendakaria*

**GORKA URTARAN AGIRRE**